

Euskaltzainburu jauna, euskaltzain guztiak, jaun-andereak, egun on.

Saiatuko naiz ‘ele guti eta hek onak’ izan daitezen, labur izaten.

Lehenengoa nafar ordezkartzan lehenik eta Euskaltzaindia osoan ondotik euskararen alde nik egin lana ezagutu izana eskertzea dagokit, baina horrekin batera erran ez direla guti nik bezainbateko edo gehiagoko merezimendua dutenak. Horien artean, bereziki aipatu nahi dut euskalzale nekaezin eta langile fin, zenbaitetan bidaide eta beti adiskide izanikako Jorge Cortes Izal otsagiar zendu berria. Niri aitortu ohorezkotasuna hari diot gogotik errendatzen, ongi merezia zuelako eta zendu bada ere, ez delako aldendu gutartetik, gutiago gugandik.

Bigarrena, hizpide dugun gaia: euskararen aldeko lana, edo nola bertutearekin gabezia dugun salatzen. Izan ere, beti hizkuntzaren alde jardun behar izateak garbi uzten baitu egoeraren anormaltasun... kronikoa (noizdanik! Detxepare...). Eritasuna, naski, ez da hizkuntzarena, hiztungoari datxekio, Ferdinand Saussure hizkuntzalari handiari jarraiki, egitate sozial bizia den erakundeari, denetan unibertsalena (eta ez bada hala, badakigu zergatik den: hizkuntzen –hiztungoen- arteko talka, menperakuntza egoera, diglosia...). Gure egoera.

Eta diglosian, jakina, iker-arautzetik legezko babeseraino corpusari eta statusari dagozkien zereginez gain –baitezpadako urrats eta lorpenak, hizkuntza guztiei zor zaizkienak-, euskal hitza ‘bizitza’ bilaka dadin, areago jorratu beharrak dira sorkuntzaren lurralde zabal eta oparoak, egunoroko erabilpen mailatik goi mailakoetaraino (arte eta literaturan, filosofia eta zientzia, hezkuntza, unibertsitatea eta hainbat bide, komunikabide eta euskarri teknologiko berrietan barna). Inondik etortzekotan bizigarritasuna hortik etorriko baitzaio. Eta behiala bezala egun ere, edo agian inoiz baino manera eraginkorragoan, inoiz baino deliberatuago, asmoz eta jakitez, gaitasunez, ausart eta trebe lan eginez. Ni, etxean jasotakoari esker, horretan saiatu naiz beti, besterik ez. Zuek ere berdin. Dena beharrezko, zinez jauzi kualitatiboaren premian izaki, eta ez bakarrik hizkuntzan -euskaldunon patua, beti ere-, bizi-erronkan trabaturik baikaude.

Milesker.

Jose Angel Irigarai  
Euskaltzaindian, Bilbon, 2010-02-26an